

Alderdi politikoetako buruzagiek aho batez gaitzetsi dute INEren jarrera

EGUNKARIAN zerrenda ez iragartzea euskaldunetikiko diskriminatorioa dela iritzi diote

ANDER GILLENIA

Alderdi politikoetako buruzagiek gaitzetsi egin dute Estatistika Institutu Nazionalak (INE) EGUNKARIAN hauteskunde mahaien zerrenda ez argitaratu izana. INEren jarrera legala izanik ere, euskaraz bizitzeko aukera egin dutenekiko diskriminatorioa dela azpimarratu dute guztiek.

Jone Larrañaga / Donostia

ESPAINIAKO Estatistika Erakundeak probintzia bakoitzean gehien saltzen diren bi egunkarietan baino ez ditu argitaratzen barruti, mahai eta hauteskunde lokalei buruzko zerrendak. Egunkari hau euskaraz argitaratzen den bakarra izanik, difusioari dagokionez probintzia buruzat hartu behar dela jakinarazi zion etxe honek, eta zerrenda EGUNKARIAN ere argitara zezan eskaini. Legeari jarraiki jokatzeko zuela argudiatuta, ordea, ezezko erantzuna eman zuen.

Alderdi politikoetako buruzagi guztiek okertzat jo dute INEren joera egunkari honi egindako adierazpenetan, eta euskara hizkuntza ofiziala izanik erabakia diskriminatorioa ere badela gaineratu dute.

Mario Onaindia PSE-EEko buruzagiaren arabera, «atzerapausoa» da Estatistika Institutu Nazionalaren jokabidea. «Azken hiru urte hauetan oso lan inportantea egin da EGUNKARIA bera normalizatzeko Euskal Herrian, euskara eta euskal prentsa normalizatzeko», adierazi digu, «ahaleginak egin dira Administrazioaren eta EGUNKARIAREN artean akordio batzuetara heltzeko, eta oraingo kasu hau atzerapauso bat da». Onaindiak gaineratu duenez, «Madrilen ez dute jarraitu hemen euskara normalizatzeko eman den prozedura».

Herri Batasunako Joseba Alvarezen arabera, «euskaldunon hizkuntza eskubideak bortxatu egiten ditu INEren jarrerak. Izan ere, «publizitate hori EGUNKARIARI ukatuz ez zaio edozein mediori ukatzen, baizik eta euskaraz argitaratzen den medio bakarrari».

Alderdi Popularrarentzat ere diskriminatzailea da INEren erabakia • Alvarezekin bat etorri da Javier Madrazo IUko koordinatzailea. Harentzat ere, «erabat diskriminatzailea da» erabakia, «herritar orok daukagun informazioa jasotzeko eskubidea urratzen» duelako. «Eskubide oinarriko diskriminatzailea da egun gutxiago diren premiei —euskararen kasua esaterako— erantzuten dieten komunikabideen kasuan», gaineratu du. IUko buruzagiaren arabera, «kasu honetan hedapen kopuruetan neurtezina den mesprezu



EHEren ekintza INEren aurrean

Euskal Herrian Euskaraz (EHE) elkarteko kideek kontzentrazioa egin zuten atzo Espainiako Estatistika Institutuak (INE) Donostian duen egoitzaren aurrean, erakunde horrek EGUNKARIAN hauteskunde mahaietako buruzko informazioa ez sartzeari erabaki duelako. INEk «EGUNKARIA eta oro har euskaldunak diskriminatu» egin dituela salatzen zuten orriak banatu zituzten. Halaber, EGUNKARIAREN ale mordo bat utzi zuten egoitzaren aurrean. Atean, berriz, *Euskal Herrian Euskaraz* leloa idatzia zeukan pankarta erantsi zuten.

kulturala dago».

Carlos Iturgaiz EAEn PPK duen idazkariaren arabera ere, «legez kanpo» ari da Estatistika Institutu Nazionala. «Hauek oraindik ez dira konturatu Euskadiko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania direla. Hori diskriminazioa baino zerbait gehiago da, jende hori jokoz kanpo dago legegari dagokionez». PPKko buruzagiak azpimarratu duenez, bi hizkuntzak dira ofizialak eta biak tratatu behar dira maila berean.

Eusko Alkartasunak euskaldunek ere Estatuko instituzioen kostuak ordaintzen dituztela ekarri du gogora, eta trukean haren informazioa gure hizkuntzan jasotzeko eskubidea daukagula azpimarratu. EAren izean Rafael Larreinak egunkari azaldu iritzi dionez, «INEk obligazioa dauka» hauteskunde

mahaiei buruzko informazioa «EAEko herritar guztiei helarazteko, bi hizkuntzetan. Eta, noski, euskarazko komunikabide idatzi bakarra eta egunerokoa, infor-

Pello Salaburu Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen arabera, esaterako, «gure eskubideen kontrako jarrera erakusten du» INEK

mazio hori euskaraz bizi nahi duten herritarrei helaraz diezaiekeen bakarra EGUNKARIA da».

Alderdi politiko guztien iritzia bildu nahian, egunkari honetatik Eusko Alderdi Jeltzalera ere jo

genuen herenegun eta atzo. Hauteskunde kanpainako joan-etorriak direla eta, ezinezkoa gertatu zaigu ordea ordezkari jeltzalaren baten iritzia biltzea.

Salaburu: «Errespetu falta handia da euskaldunontzat» • Politika munduko ordezkariak ezezki, kultur eta hezkuntza mundukoek ere gaitzetsi dute Estatistika Institutuak publikizitatea kontratatzeke duen legedia. Pello Salaburu Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen arabera, esaterako, «gure eskubideen kontrako jarrera da» INEren. «Euskaldunontzat errespetu falta handia da. Hemen bada gizartearen sektore zabal bat egunkari hori bakarrik erosi eta irakurtzen duena, eta orduan ikusten dut ezinbestekoa horretan ere informazio hori argitaratzea», zehaztu du Salaburuk.

Trafiko Ordezkaritzak besterik ez

ADMINISTRAZIOAK, oro har, publikizitate gutxi kontratatu izan du EUSKALDUNON EGUNKARIAN. Eusko Jaur-laritzarekin sinatutako akordioak arazo horri hein handi batean irtenbidea emango zio-la uste izan arren, hitzarmen hark sortutako espektatibak ez dira betetzen ari oraindik. Publikizitatea apur-

ka-apurka iristen da erakunde publikoetatik, eta ez egunkari honi difusio mailan eza-gutu zitzaion probintzia-buru izaerak eskatuko lukeen heinean.

Egoera are larriagoa da, ordea, administrazio periferikoari dagokionez. Madrilgo Gobernua-ren menpean dauden erakunde pu-

blikoak ia publikizaterik batere ez dute kontratatu EGUNKARIAK egin dituen bost urte pasa hauetan.

Espainiako Barne Ministerioak baino ez ditu iragarkiak argitaratu kazeta honetan, eta sail horretan gainera, Trafiko Ordezkaritzak baino ez. Errepi-deetako istripuak eragozteko egin zuen kan-


painako iragarkiak baino ez dira argitaratu EGUNKARIAN; sail horrekin berak egin izan dituen beste asko kanpoan geratu izan dira. 1994. urtean 630.000 pezetakoa (25.000 lilibera inguru) izan zen Trafiko Ordezkaritzak egunkari honetan egindako gastua, eta iaz 660.000 pezetakoa. X

erreakzioak

Javier Madrazo ♦ IU

«Eskubide oinarriko eta konstituzional honen urratzea are larriagoa da egun gutxiago diren premiei —euskararen kasua esaterako— erantzuten dieten komunikabideen kasuan. Oinarriko eskubideen urratzeaz gain, kasu honetan hedapen kopuruetan neurtezina den mesprezu kulturala dago. X

Mario Onaindia ♦ PSE-EE



«Azken hiru urte hauetan oso lan inportantea egin da EGUNKARIA bera normalizatzeko

Euskal Herrian, eta oraingo hau atzerapauso bat da. Uste dut Madrilen ez dutela jarraitu hemen euskara normalizatzeko izan den prozedura azken urte hauetan. X

Joseba Alvarez ♦ HB

«Azken finean publikizitate hori EGUNKARIARI ukatuz ez zaio edozein mediori ukatzen, baizik eta euskaraz argitaratzen den medio bakarrari. Azken finean euskaldunon hizkuntza eskubideak bortxatzen dira. X

Carlos Iturgaiz ♦ PP



«Diskriminazio guztiak kaltegarriak eta tamalgarririk dira. Hauek oraindik ez dira kontura-

tu Euskadiko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania direla. Hori diskriminazioa baino zerbait gehiago da, jende hori jokoz kanpo dago legegari dagokionez. Konturatu behar dugu hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania direnez biak maila berean tratatu behar direla. X

Rafael Larreina ♦ EA



«Ezin dira diskriminatu euskaldunak, ez eta behartu ere zerbitzu publikokoa den in-

formazio bat euren ez den hizkuntza batean bilatu eta lortzea. Nik uste dut INEk obligazioa daukala informazio hori EAEko herritar guztiei helarazteko, bi hizkuntzetan. Eta informazio hori euskaraz bizi nahi duten herritarrei helaraz diezaiekeen bakarra EGUNKARIA da. X